

# Gremlin espeziearen eboluzioa



Goian, ezkerrean, 1984ko gremlinak. Alboan, XX. mendearren lehen erdialdekoak, fabriketan haiekin kontuz ibiltzeko ohartarazten zuten iragarkietako batean. Eta lerro hauen ezkerrean RAFeko pikotua Gremlin's Delight (Gremlinaren gozamena) izeneko hegazkinaren aurrean.

HOLLYWOOD, 1984. Joe Dante zine zuzendariak *Gremlins* filma estreinatu zuen. Gremlinek, beldur ukitu bat duen komedia horren protagonistek, Gizmo izeneko *mogway* batetik jaio eta AEBetako herri bat hankaz gora jartzen dute. Eta dena, Gizmoren jabeak saltzaileak emandako oinarritzko hiru arauak bete ez dituelako: ez hurbildu *mogwaya* argi distiratsuetara, urik ez eman eta, batez ere, gauerdia jota ez dezala jan. Diru-jan ederra egin zuen filmak; 150 milioi dolarretik gora bildu zituen. Baina gainera izaki bihurriak 1980ko hamarkadako ikono bihurtu ziren.

Baina gremlinak ez ziren film sortaren gidoilarien asmakizuna izan. Europa Iparraldeko tradizioko izaki batzuek izan omen zituzten inspirazio iturri. Kondairak dio iratxo modukoak zirela, makinak saboteatuz, okerrak eraginez eta objektuak desagerraraziz jostatzen zirenak.

XX. mendera arte ez zen haien berri idatziz jaso. Lehen Mundu gerraren ostean azaldu ziren lehenengoz gremlinei buruzko albisteak egunkari britainiarretan. Fabriketako langileek kezkatu behar zuten bereziki, gremlinak ez zeudelako ados Industria Iraultzak ekarritako aurrerapenekin.

Baina Bigarren Mundu Gerran hasi ziren benetan gremlinetan sinesten —edo, badaezpada, existitzen ez zirela ozen ez esaten—. Dirudienez, Ekialde Hurbilaren inguruan hegaldaten ziren RAFeko pilotuak gremlin txikiei egozten zizkieten itxuraz arrazoirik ez zuten istripuak. Gremlinak aireplanoen barruan sartzen omen ziren eta motorra edo beste edozein gailu hondatzen zuten.

Pilotuek pentsatuko zuten hobe zela halako zaletasun suntsitzaileak zituzten izakiak alde izatea. Horregatik, Alemanian bonba hegazkinak gidatzen zituzten pilotu britainiarrak gremlin panpinak eramaten hasi ziren edo fuselajea gremlinak marrazten, zorte ona ekartzen omen zielako.

1943an, gerra betean, Roald Dahl RAFeko pilotuak *The Gremlins* izeneko liburuxka idatzi zuten, izaki txikien bihurrikeriak kontatzeko. Eta bertan, gremlinen txikiziorako zaletasunaren jatorria azaltzen du, modu ez oso zientifikoan: gremlinak gizakiei erasotzen hasi ziren bitoki zuten basoan hegazkin fabrika bat eraiki zutelako, eta ondorioz haien etxetxoak suntsituta geratu zirelako. ■



## Arrastoak

### 99 urtez ordua gaizki jo zuen ordularia

ERROMAN, K.a. III. mendean ipini zuten hiriko lehen ordularia. Katanian (Sizilia) lortu zuten gailua, Lehen Gerra Punikoko gatazka baten ondorengo harrapakinen artean. Jakina, eguzki ordulariek funtzionatzeko funtsezko parametroetako bat erlojuaren kokapena da. Erromatarrek ederki zekiten hori, baina harrapakina hirian jartzea erabaki zuten berdin.

Bi hirien artean lau gradutik gorako aldea dago latitudean (Katania, 37,31°I; Erroma, 41,53°I), eta erlojuak ez zuen ia ezertarako balio, ordua zuzen jotzeko behintzat ez.

Hala ere ia mende osoa utzi zuten hantxe. Plautoren komedia batek dioen moduan: “Jainkoek nahas dezatela orduak asmatu zituena eta hiri honetan eguzki ordulari bat jarri zuena, eguna txukun ordenatutako zatixotan zatitu baitit. Txikitari urdaila nuen ordulari bakarra, horietako edozein baino hobea eta fidagarriagoa. Jateko ordua jotzen zidan beti, jatekorik ez zegoenean izan ezik”. ■

AD MESKENS



Erromatar eguzki ordularia, hiriko lehen ordulari hura baino berriagoa eta zuzenagoa.